



DESFIBRILADORE-INPLANTERAKO INFORMAZIO-ORRIA

Pertsona batzuek arritmiak dituzte (bihotzaren erritmoaren alterazioak), eta oso arriskutsuak izan daitezke. Babesteko, desfibriladore automatiko bat ezartzen zaie. Aparatu honek bihotzaren erritmoa zaintzen du denbora guztian. Arritmia larri bat detektatzen badu, deskarga elektriko bat abiarazten du erritmo normala itzultzeko.

Zertan datza?

Prozedura anestesia lokala erabiliz egiten da (eremua soilik lokartzen da).

Ebakuntza egin aurretik, bularraldea soilduko da. Ondoren, mediku-taldeak ebaki txiki bat egingo du bularraren goiko aldean (toraxa). Gailua larruazalaren azpian jartzen da, elektrodo bati edo biri lotuta, kasua zein den. Beharrezkoa izan daiteke funtzionamendu egokia egiaztatzea, zure arritmien antzekoak sortuz eta ezabatuz.

Nola prestatu behar dut inplantea jarri aurretik?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak badituzu, harrera-solairuan sartzen zaren unean kendu beharko dituzu.

Audifonoak erabiltzen badituzu, izan itzazu jarrita ondo komunikatu ahal izateko.

Nora jo behar dut ebakuntzaren egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan.

Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.



Nola egingo didate prozedura?

Ospitalizazio-unitatera iristean:

- Harreran ohe-atorra bat emango dizute, eta jantzi egin beharko duzu. Azpiko arropa eta objektu pertsonalak kentzea gomendatzen dizugu.
- Erizainak zain bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu ezkerreko besoan, prebentziozko antibiotikoak eta beste sendagai batzuk emateko, behar izanez gero, lasaiago eta erlaxatuago egon zaitezten. Iododun kontrastea (X izpiekin ikusten den likidoa) erabil daiteke elektrodoak zainetatik bihotzeraino gidatzeko.

Prozedura nola egiten den:

- Ohatilan etzango zaituzte, eta beharrezkoa denean soilik desestaltiko dizute gorputza.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
 - Batzuetan, saturimetro bat atzamarrean, oxigeno-maila neurtzeko.
- Izara esteril txiki batez estaltiko zaituzte, eta ebakia egiten den lekua soilik utziko da agerian.
- Anestesia lokala emango zaizu eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozedurak ordubete edo 2 ordu artean irauten du, gutxi gorabehera. Amaitzean, desfibriladorea azalaren azpian jarriko da.

Zer egin behar dut gero?

Ebakuntzaren ondoren, ospitaleratuta egongo zara. Prozedura amaitu eta 2 eta 4 ordura atseden hartu beharko duzu, baina ez erabatekoa.

Ezingo duzu jan prozedura amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.

Inplantea jarri eta 12-24 ordura, kontrol-erradiografia bat egingo dizugu, konplikaziorik ez izateko.

Etxean, jarraitu gai hauei buruz ematen dizkizuten gomendioak:

- Nola zaindu zauri kirurgikoa.
- Nola mugitu besoa desfibriladorea dagoen aldetik.

Urruneko monitorizazioa izeneko urrutiko kontrol-sistema bat eskainiko dizute. Sistema horrek automatikoki abisatzen du estimulazio- eta arritmia-kontsultara (erizaintzako kontsultara), bihotzaren erritmoan edo gailuan alterazioen bat detektatzen badu.



Alta jasotzean, hitzorduak emango dizkizute:

- Estimulazio- eta arritmia-kontsultako erizainarekin:
 - Zauri kirurgikoa berrikusteko.
 - Urrutiko monitorizazioak nola funtzionatzen duen azaltzeko (onartu baduzu).
- Zure kardiologoarekin, datozen hilabeteetan, desfibriladorearen funtzionamendua kontrolatzeko.

KARDIOLOGIAKO TALDEAK ZURE **INTERBENTZIOAREN BIDEOA** IKUSTEA PROPOSATZEN DIZU

1. **KONEKTA ZAITEZ HEMEN:**

<https://meduvipiberia.okast.tv>

Edo eskaneatu hurrengo QR kodea|



2. **IDENTIFIKA ZAITEZ HEMEN:**

Helbide elektronikoa: cardio@txago.eus

Pasahitza: **Cardio 1009**

3. **KONEKTATU BERRIRO** zure telefonoaren **KAMERA** eta **ESKANEATU** zure **EBAKUNTZARI** dagokion bideoaren **QR KODEA**:



4. Zure **EBAKUNTZARI** dagokion bideoa berriro ikusi nahi duzun bakoitzean, azken **QR KODEA** eskaneatu besterik ez duzu egin behar.